

# **MUNGIAKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK EMOTEN DABEZEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUAN ORDENANTZA**

## **ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK** **I. KAPITULUA. APLIKAZINO EREMUJA**

### **1. artikulua.-Xedea**

Ordenantza honen xedea Mungiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek emoten dabean dirulaguntzen araubide juridiko nagusia araupetzea da, udalaren onerako dan edozein ekimen pribatu sustatuta.

### **2. artikulua.-Dirulaguntza zer dan**

1. Zera hartuko da dirulaguntzat: Mungiako Udalak edo bere Erakunde Autonomoek pertsona publikoen edo pribatuen alde emondako diruzko erabagi guztiak, beti bere, eskakizun honeek beteten badira:
  - a) Dirulaguntzak onuradunen zuzeneko kontraprestazino barik emotea.
  - b) Dirulaguntza, helburu jakin bat, proiektu bat, ekintza bat, jarrera berezi bat edo egoera bat gauzatzeko edo gauzatu izangaitik emotea; beraz, ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete egin beharko ditu onuradunak.
  - c) Diruz lagunduko dan proiektu, ekintza, jarrera edo egoera horren helburua herriaren edo gizartearen onerako izatea, edo herri helburu bat sustatzea.
2. Udalaren edo bere Erakunde Autonomoen irudia kanpoan hedatzeko onuragarritzat hartzen diran dirulaguntzen kasuan, honako eskakizun honeek bete beharko dira:
  - a) Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen izena jendaurrean modu nabarmenean agertu daitela.
  - b) Ekintza horreek izan daiela ahal danik eta gizarte oihartzunik handiena.
  - c) Ekintza horreen helburuen artean aitatu daitela zehatz Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen irudia kanpoan hedatzeko asmoa.
3. Ordenantza honen aplikazino eremutik kanpo geratzen dira ondoko diru ekarpenak:
  - a) Administrazio Publikoen arteko diru ekarpenak, baita Udala, bere erakundeak eta bestelako menpeko erakunde publikoen artekoak bere, baldin eta baktxaren ahalmenen eremuko jarduera osoa finantziatzeko egiten badira.
  - b) EUEDEL Euskadiko Udalen Elkartearentzat edo Tokiko Araubidearen oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako udalerrietako edozein alkarerentzat diran kuotak.
  - c) Udal talde politikoei egindako ekarpenak, aurrekontuei eta kontabilitatearen ganeko arautegiaren aplikazinoari kalterik egin barik.
  - d) Dirulaguntzen ganeko Lege Orokorrean ezarritako garaitiko guztiak.

## **II. KAPITULUA. MUNGIAKO UDALAK EDO BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK EMONDAKO DIRULAGUNTZETAN GUZTIENTZAT DIRAN XEDAPENAK**

### **3. artikulua.- Aurrekontu aurreikuspena**

1. Udalak edo bere erakunde autonomoek dirulaguntzak adjudikatu ahal izateko ondoko baldintzak bete beharko dira aldez aurretik: aurrekontuan diru-izendapena egongo da, kreditua atxikitzeko dokumentua beharko da eta fiskalizazio tramitea bete beharko da. Hori guzti hori Aurrekontua betearazoteko Udaleko Arauan ezarritakoari jarraituta egingo da.
2. Dirulaguntzak emoteko erabagiak zuzenbide osoz baliobakotzat joko dira, aldez aurretik aurrekontuko diru-izendapen egokirik edo nahikorik ez badaukie.

### **4. artikulua.- Printzipio nagusiak**

1. Dirulaguntza guztiak egongo dira bideratuta eskaintza publikoa edo gizarte-onura helburutzat daukiezan ekintzetara, beti bere, administrazio publikoak sustatu beharrekoak badira. Dirulaguntzak emoteko erabagiak baliobakotzat joko dira, erabagi horreek eskuzabaltasun hutsez jokatzeko hartzen badira.
2. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, eta edozein unetan ezeztatu edo murriztu ahal izango dira, legean edo arauetan ezarritakoa izan ezik. Dirulaguntzak emoteko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira edo, edozelan bere, arauetan baimendutako kasuetatik kanpo dagozan beste bide batzuetatik diru-ekarpen gehiago lortzen bada, dirulaguntza emoteko ebazpena aldatu egin ahal izango da.
3. Ez jake dirulaguntzarik emongo merkatuko lehiakortasun librearen kolusinoa edo murrizketa eragiten daberen jarduera ekonomikoei, Europar Batasunak lehiakortasunaren babeserako emondako arauetan ezarritakoagaz bat etorrita.
4. Dirulaguntzen zenbatekoa ez da inoiz bere diruz lagundutako ekintzaren kostua baino altuagoa izango, ez bera bakarrik ez beste dirulaguntza batzuei gehituta bere.
5. Dirulaguntzak honako irizpide honeen arabera gestionatuko dira:
  - a) Publizitatea, merezimendua, gardentasuna, lehiaketa librea, objektibotasuna, bardintasuna eta diskriminaziorik eza.
  - b) Eraginkorra izatea Udalak edo bere Erakunde Autonomoek finkatutako helburuak betetzeko.
  - c) Eraginkorra izatea baliabide publikoak baliatu eta erabiltzeko.
6. Dirulaguntza jasoten dabenean, dirulaguntza jaso aurretik, lehenago jasotako dirulaguntzen egiaztapena kreditatu beharko dabe, baita Udalagazko zerga-betebeharrak egunean daukiezala bere; ganera, jasotako diruaren aplikazioa epe barruan egiaztatuta beharko dabe.
7. Ezarritako baldintzak bete ez badira, adibidez: emondako diruaren aplikazioaren justifikazioa egin ezean, edo diru hori esandako helbururako barik beste helburu baterako erabili bada, edo onuradunei ezarritako betebeharrak beteten ez badira; onuradunek itzuli egin beharko dabe jasotako diru kopurua, berandutze interes eta guzti (dirulaguntza jaso denetik diru hori itzuli artekoak). Hori guzti hori Ordenantza honetako II. tituluan xedatutako prozedurari jarraituta egingo da.

### **5. artikulua.- Dirulaguntzen plan estrategikoa**

1. Udalak edo bere Erakunde Autonomoek, dirulaguntzak ezartzea proposatzen dabenean, ondoko puntuak bere sartu beharko dabez plan estrategikoan: batetik, dirulaguntzak horreen bidez lortu gura diran helburu eta ondorioak, eta bestetik, burutze-epeak, aurreikusitako kosteak eta koste horreen finantziakzioa, beti bere, aurrekontuaren egonkortasunaren menpe geldituta.

2. Plan estrategiko hori aurrekontuak onartzen diranean egin daiteke, eta horretara, euron dokumenazioagaz batera sartu. Halanda bere, dirulaguntzak onartzeko zein aldatzeko, aldez aurretik edo aldi berean egin beharko da plan estrategikoaren onarpena edo aldaketa.

#### **6. artikulua.- Dirulaguntzak emoteko betekizunak**

1. Dirulaguntzak emon aurretik, dirulaguntzen adjudikazioa arautuko dabena arauak onartu beharko dira, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.
2. Dirulaguntza mota bakotxaren oinarri arautzaileak aldizkari ofizialean argitaratuko dira.
3. Gehigarri moduan, dirulaguntza emoteko honako eskakizun honeek bete beharko dira:
  - a) Erakunde emolea eskuduna izatea.
  - b) Dirulaguntzak emotek dakarzan ekonomi arloko betebeharrari aurre egiteko nahikoa kreditu eta kreditu egokia izatea, 3. artikuluan ezarritakoagaz bat etorrita.
  - c) Dirulaguntza emoteko prozeduraren izapidea ordenantza honetan eta aplikagarriak diran ganerako arauetan ezarritakoari jarraituta egitea.
  - d) Gastuaren aurretiazko fiskalizazioa.
  - e) Erakunde eskudunak gastua onartzea.

#### **7. artikulua.- Onuradunak**

1. Onuradunak ondokoak hartuko dira: diruz lagunduko dan ekintza burutuko dauena edo dirulaguntza jasotea legebideztatzen dauen egoeran dagoan pertsona.
2. Oinarri arautzaileetan beren beregi halan xedatzen danean, ondoko talde honeek bere izan daitezke onuradun: pertsona fisiko edo juridiko osatuak, publikoak edo pribatuak, ondasun alkatuek, jaubeen alkatuek, eta -nortasun juridikorik izan barik bere- proiektuak eta jarduerak egin edo jarrera jakin bat hartu leikean edozein ekonomi edo ondare unidate banatua edo dirulaguntza emoteko egoeran dagozan pertsona guztiak.
3. Aurreko atalean azaldutako kasuetan, alkatueko ordezkaria edo ahaliduna (bakarra) izendatu beharko da, onuradun modura behar besteko eskumenak izango dituna alkatueari jagokozan betebeharrak beteteko.
4. Estatuko oinarriko legerietan edota berau garatzeko erkidegoko legerietan xedatutakoak arautuko ditu onuraduna izateko bete behar diran eskakizunak, baita bere betebeharrak, alkatuegatzko lankidetzak hitzarmenak zelan egin eta Udalak eta bere Erakunde Autonomoek onetsiko dabezan onarriak bere.

#### **8. artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

Honeexek dira onuradunen betebeharrak:

- a) Helburua betetea, proiektua betearazotea, jarduera egitea edo dirulaguntzaren adjudikazioaren oinarri izandako jarrerari eustea.
- b) Dirulaguntza emon dauen erakundearen edo, halan danean, erakunde laguntzailearen aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak beteten dirala, baita jarduera egin dala eta dirulaguntza emoteko edo izateko helburua bete dala bere.
- c) Emoleak edo, halan danean, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapenen menpe jarrea, baita kontrola egiteko organo finantziario eskudunek egin lekiezan finantza eta egiaztapeneko beste jarduketan

- menpe bere, erakundeok nazio mailakoak zein erkidegokoak izan. Ganera, jarduketa horreek egiteko eskatzen jaken informazioa emon beharko dabe.
- d) Erakunde emoleari edo erakunde laguntzaileari jakinarazotea diruz lagundutako ekintzak horreek burutzeko ea jaso daben beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik, eta euron zenbatekoa eta ezaugarriak. Informazio hori jakin bezain laster emon beharko da eta, edozelan bere, jasotako diruari emondako erabilera justifikatu aurretik.
  - e) Udalagazko eta Gizarte Segurantzazko zerga-betebeharretan egunean dagoala egiaztatzea, dirulaguntza emoteko ebazpena egiaztatu aurretik.
  - f) Kontabilitate liburuak, dilijentziatutako erregistroak eta behar bezalako auditoretza pasatutako ganerako agiriak izatea (kasu bakotxean onuradunari aplikatu lekikion merkataritza eta arlokako legeriaren arabera); baita dirulagutzen oinarri arautzaileetan eskatzen diran berriazko erregistroak eta kontabilitate orriak bere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki beteten dirala bermatzeko.
  - g) Jasotako diruaren gastuaren egiaztagiria gordetea, agiri elektronikoak barne, euron ganeko egiaztapen eta kontroleko jarduketak egiten badira bere.
  - h) Dirulaguntzaren bidez finantziatutako programa, ekintza eta ganerako jarduerak diru publikoz egin dirala herritarrei jakinarazo ahal izateko, legez ezarritako neurriak hartzea. Batez bere, jendaurreko jarduerak diranean, Udala eta bere Erakunde Autonomoak babesleak izan dirala agertu beharko dau.
  - i) Onuradunak diruz lagundutako programa edo ekintzen promoziorako ateraten dauen idatzizko dokumentazio guztia euskeraz edo euskeraz eta erderaz atera beharko dau. Ekintzaren justifikazioagaz batera egiaztatu beharko da betebehar hau bete egin dala.

### **9. artikulua.- Erakunde laguntzaileak**

Erakunde laguntzaileak ondokoak dira: Udalaren edo bere Erakunde Autonomoen izenean eta haien kontura –dirulaguntzei jagoken guztian– onuraduneri fondo publikoak emon eta banatzen deusezkanak, beti bere, oinarrietan halan ezarrita badago; edo dirulaguntzen gestioan laguntzen dabenak, jasotako fondoak emon edo banatu barik. Fondo horreek inoiz bere ez dira hartuko bere ondoretzat.

### **10. artikulua.- Debekuak**

1. Ezin izango dira onuradunak edo erakunde laguntzaileak izan ondoko egoeraren baten dagozan pertsonak edo erakundeak, dirulaguntza mota dala-eta araudian salbuesten ez badira behintzat:
  - a) Epailak, epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lotzeko aukera galtzera zigortuak dagozanak.
  - b) Prozedura judizialaren adierazpena eskatu izan jakenak, edozein prozeduratan kaudimenbakotzat hartu izan diranak, prozedura judizialean parte hartu dabenak, epailearen esku-hartzearen menpe dagozanak edo Prozedura Judizialaren ganeko Legearen arabera desgaituak dagozanak – desgaitze epealdia amaitu barik badago–.
  - c) Administrazioagazko edozein kontratu erabagi irmoz suntsiarazo dabenak, erruduntzat jo badabez.

- d) Ondoko legerietan ezarritako bateraezintasuneko kasuren baten dagozan pertsona fisiko, merkataritza soziedadeetako administratzaile edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak daukienak: Nazioko gobernuko kideen eta administrazio orokorreko goi karguen Bateraezintasunen legerian, Eusko Jaurlaritzako kideen eta goi karguen bateraezintasunen legeria automatikoan, herri administrazioetako zerbitzuko langileen bateraezintasunaren ganeko legerian edo edozein kargu hautatua izatea, gai horren inguruko hauteskudeen ganeko legeria orokorrean edo autonomikoan ezarritakoaren arabera.
  - e) Zerga-betebeharrak egunean ez daukiezanak, batez bere, Udalagazkoak edo Gizarte Segurantzazkoak.
  - f) Arauetan paradisu fiskaltzat hartzen dan herrialde edo lurraldeetako baten bizi diranak.
  - g) Dirulaguntzen itzulketarako betebeharrak egunean ez dagozanak, arauetan ezarriko danaren arabera.
  - h) Ebazpen irmo bidez zigortuta dagozanak dirulaguntzak lortzeko aukera galduta, dirulaguntzen ganeko estatuko Legeri Arautzailearen edo Zergen ganeko Foru Arau Orokorraren arabera.
2. Onuradunak egiaztatu egin beharko dau bera ez dagoala aurreko atalean azaldutako egoera horreetako baten bere, eta horretarako hainbat bide izango ditu: epailearen aurreko testigantza; ziurtagiri telematikoak edo datuen eskualdaketen bidez, teknika elektronikoko horreen erabilera arautzen dauen arautegian xedatutakoaren arabera; edo, ostantzean, administrazioetako ziurtagirien bidez. Agintari eskudunak egiaztapena emon ezin badau, horren ordeztuzukizun-adierazpena egin leiteke administrazio agintarien edo notario publikoaren aurrean.

### **11. artikulua.- Emondako dirulaguntzen publikidadea**

1. Udalak eta bere Erakunde Autonomoek emondako dirulaguntza guztien ganeko publikidadea egingo dabe. Horretarako, dirulaguntzen zerrendaren iragarkia Udaleko iragarki-oholean jarriko da. Iragarki horretan ondokoa agertuko da: deialdia, ezarri jaken aurrekontuko kreditua eta programa, onuraduna, emondako diru-kopurua eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak.
2. Halaber, ebazpenaren zati bat, hain zuzen bere, iragarki-oholean publikatzeari jagokona, Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratuko da.
3. Ondoko kasuetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren iragarkia argitaratzea:
  - a) Dirulaguntzek Udaleko edo bere Erakunde Autonomoetako aurrekontuetan diru-kopururen bat izendatuta badaukie.
  - b) Lege mailako arau batek agintzen badau dirulaguntza hori onuradun jakin bati adjudikatu behar jakola eta zenbatekoa arau horrek berak zehazten badau.
  - c) Emondako dirulaguntzen zenbatekoak, banan-banan hartuta, 3.000 eurotik beherakoak badira, ez dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatuko.
  - d) Dirulaguntzaren helburua dala-eta, onuradunaren datuen argitalpenak pertsona fisikoen ohore, intimidate pertsonal eta familiarren errespetuaren eta zaintzaren kontrako eragina badauka. Beti bere, Ohorea, intimidate pertsonal eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilaren ganekoa dan maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarrikoa kontuan hartuta, eta eskubide hori araudi erregulatzailean jarri bada.

4. Onuradunek publizidade egokia emon beharko deutsie egitarauen finantzaketari, jardueri, inbertsinoei edo diruz lagundutako edozein ekintzari, arauetan edo adjudikazioaren ganeko oinarri erregulatzailleetan ezarritakoari jarraituta.

### **12. artikulua.- Dirulaguntzen gestinoaren ganeko informazioa**

1. Udalak eta bere Erakunde Autonomoek arauetan jarritakoaren arabera gestionatutako dirulaguntzen ganeko informazioa emon beharko deutsie Estatutari edo erkidegoko agintari eskudunen Kontuhartzailletza Nagusiari, estatistika eta informaziorako huts-hutsean, estatuko eta erkidegoko datu-basea eratzeko. Horretara, bete egingo da Europar Batasunak eskatutakoa: dirulaguntzen eraginkortasuna hobetzea, dirulaguntzen metatzea eta pilaketa kontrolatzea, eta planifikazioa, jarraipena eta kontrolerako ekintzak erraztea.
2. Aurreko atalean ezarritakoa dala-eta, Estatuaren Kontuhartzailletza Nagusiari itxi behar jakozan datu pertsonalak emoteko, ez da beharko interesatuaren baimenik.
3. Datuen barri daukien agintariek eta funtzionarioek lanbide-sekreturik zorrotzena eta osoena gorde beharko dabe derrigorrean datuoi jagoken guztian.

## **I. TITULUA. DIRULAGUNTZAK EMOTEKO ETA GESTIONATZEKO PROZEDURAK**

### **I. KAPITULUA. EMOTEKO PROZEDURA**

### **13. artikulua- Emoteko prozedurak**

1. Dirulaguntzak emoteko ohiko prozedura lehiaketa izango da. Prozedura hori dala bide, aurkeztutako eskabideak alderatuta eta euron artean lehentasunak ezarritakoan egingo da adjudikazioa, beti bere, oinarri arautzaileetan eta deialdian aldez aurretik finkatutako balorazio irizpideakaz bat etorrita. Eta baloraziorik handiena izan dabenak deialdian finkatutako mugaren barruan eta kreditu erabilgarriaren barruan adjudikatuko dira.
2. Salbuespen modura, eta oinarrietan halan aurreikusita badago, erakunde emoleak dirulaguntzaren zenbateko osoa hainbanatu egingo dau dirulaguntzaren onuradun guztien artean.
3. Zuzenean emon ahal izango dira ondoko dirulaguntza honeek, beti bere, behar bezala arrazoitu ezker:
  - a) Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Aurrekontu Orokorretan izen eta guzti agertzen diran dirulaguntzak, jagokezan hitzarmenetan eta dirulaguntzok arautzen dabezan arauetan ezarritako eran.
  - b) Lege-mailako arau batek ezarritako adjudikazioa eta zenbatekoa daukienak. Dirulaguntzok bere arautegiaren araberrako adjudikazio prozedura eukiko dabe.
  - c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa euki leikien dirulaguntzak, baita behar bezala egiaztatuta izanik deialdi publikoa egiteko zailtasunak dagozanean bere.
4. Ezin izango da deialdian finkatutakoa baino kopuru handiagoko dirulaguntzarik emon.

## **II. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK EMOTEKO PROZEDURA NAGUSIA** **NORGEHIAGOKA-ERREGIMENAREN ARABERA**

### **1. atala**

### **Oinarriak onesteko espedientea**

#### **14. artikulua.- Edukiak eta izapideak**

1. Dirulaguntzak emon aurretik, espedientea egin beharko da. Espediente hori ofizioz hasiko da beti eta ondoko ataletan ezarritakoari jarraituta izapidetuko da.
2. Aurrekontu-programaren arduradunak txosten bat egin beharko dau egiaztatzeko momentu horretan emon gura dan dirulaguntza hori emotea legezkoa ez eze egokia eta aproposa bere badala. Eta Dirulaguntzen Programa Estrategikoan ondoko honeen aurreikuspena egin beharko dau: dirulaguntzak emoteko aurrekontuko kredituak eta dirulaguntzaren helburua, baldintzak eta xedea. Ganera, txostenari oinarri-proiektua erantsiko deitso.
3. Dirulaguntzak emoteko oinarrietan, gitxienez, honako honeek zehaztu beharko dira:
  - a) Dirulaguntzaren xedea eta helburua.
  - b) Dirulaguntzaren onuradunak eta eskatutako betekizunak.
  - c) Eskabideak aurkezteko era eta epea.
  - d) Dirulaguntza emoteko prozedura.
  - e) Dirulaguntza emoteko irizpide objektiboak eta, halan danean, irizpideon ponderazioa.
  - f) Kalifikazio-epaimahaiko kideak.
  - g) Dirulaguntzaren banakako kopurua edo kopuru hori finkatzeko irizpideak.
  - h) Zein izango dan dirulaguntza emoteko prozedura, ebazpenaren ganeko jakinarazpen-epea eta administrazioaren isiltasunaren inguruko gaiak ebartzeko dituan erakunde eskuduna.
  - i) Aurrekontuko kreditua dagoala egiaztatuta izatea.
  - j) Onuradunen betebeharrak, Ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoari jarraituta.
  - k) Diruz lagundutako jardueraren burutzapen partziala beste batzuei azpikontratatzeko onartuta dagoan ala ez, 19. artikuluan jarritako muga kontuan hartuta.
4. Kredituaren atxikipenaren ganeko dokumentua erantsiko jako espedienteari.
5. Jagokon arloko ordezkariak proposamena egin beharko dau.
6. Jagokon arloko ordezkariak egindako proposamena dakarren espedientearen Udaleko Kontuhartzailtza Sailera bidaliko da, sail horretan fiskalizazio izapideak egin daiezan.

#### **15. artikulua.- Oinarriak onesteko ebazpena**

Alkateari jagoko dirulaguntzak emoteko oinarriak eta deialdia bera onartzea.

#### **16. artikulua.- Publizitatea**

Oinarriak onesti ostean, deialdiagaz batera argitaratuko dira iragarki bidez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan zabalkunderik gehien daukien egunkarietako baten. Oinarrien testua dirulaguntza emoten dauen erakundearen iragarki-oholean argitaratuko da, testua onesten dan egunean hasi eta eskabideak aurkezteko akabuko egunera bitartean.

## **2. atala**

### **Dirulaguntzak emoteko espedienteak izapidetzea**

#### **17. artikulua.- Eskabideak jasotea**

1. Interesatuak Presidentziari zuzendu beharko deitsoez euren eskabideak, oinarrietan eskatzen dan dokumentazio guztiagaz batera, administrazio-prozedura erkidearen ganeko legeriak ezarritako baldintza eta prozedurei jarraituta; eta beti

- bere, deialdiaren oinarrietan ezarritako epearen barruan. Beren beregi eperik aitatuta ez balego, epe hori 15 egun baliodunekoa izango litzateke, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan hurrengo egunetik kontatzen hasita.
2. Eskabideak eta dokumentazio osagarria telematika bidez aurkeztu ezkerro, administrazio prozedura erkidearen ganeko araudiak ezarritakoaren arabera jokatu beharko da.
  3. Oinarrietan eskabideari erantsi beharreko dokumentazioaren ganeko aipamen berezirik egin ezean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
    - a) NANaren edo IFKren fotokopia eta, beharrezkoa danean, bere legezko ordezkariarena.
    - b) Diruz laguntzeko eskatzen dan jarduera horregaz irabazi-asmorik ez dagoala ziurtatzen dauen zinpeko aitortpena.
    - c) Erakundearen edo alkartearen estatutuak , irabazi-asmorik bako alkartea izan ezkerro.
    - d) Udalagaz eta Gizarte Segurantzazagazko zorren ordainketak egunean dituala egiaztatzen dauen agiria.
    - e) Aurreko ekitaldian egindako jardueren ganeko memoria, halan danean.
    - f) Dirulaguntzaren helburua, proiektua eta jarduera beteteko edo diruz lagundutako jarrera hartzeko egiten diran ekintzen ganeko memoria, honako honeek adierazota: sarrerren eta gastuen aurrekontua, jarduera egiteko epeak eta datak, aurreikusitako helburuen azalpena, metodologia, nori zuzenduta dagoan eta lortu gura diran ondorioak.
    - g) Beste administrazio, erakunde edo organo publiko edo pribatuetatik jasotako edo hareei eskatutako dirulaguntzen ganeko zinpeko aitortpena.
    - h) Dirulaguntza emoteko alegatutako merezimenduen ganeko egiaztagiria.
  4. Oinarrietan agertu daiteke eskatutako dokumentu jakin batzuk aurkeztu ordezkatzailleak egin leielat erantzukizun-adierazpen bat. Holangoetan, dirulaguntza emoteko erabagi proposamenak egin aurretik, eskatu egingo jako interesatuari egindako adierazpen horretan agertzen diran datuak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu daiala gehienez bere 15 eguneko epean.
  5. Oinarrietan, edo artikulua honetako 2. atalean, eskatutako dokumentu hori jada Udalaren edo Erakunde Autonomoen esku balego, eskatzailleak ez dau atzera aurkeztu beharko argi adierazoten badau eskarian dokumentu horreek noiz eta zein erakunderi aurkeztu edo igorri eutsozan, eta beti bere, prozedura ha amaitu zanetik bost urte bete ez badira.
  6. Eskariak ez baditu beteten deialdian eta oinarrietan eskatutako betekizunak, eskabidea zuzentzeko eskatuko jako interesdunari gehienez 10 eguneko epean, eta ganera gogorarazoko jako: esandako moduan egin ezean, eskabideari uko egin deusola ulertuko dala. Hori guzti hori Administrazio Prozedura Erkidearen ganeko legerietan ezarritakoari jarraituta egingo da.

### **18. artikulua.- Instrukzioa**

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Epaimahaia eratuko da oinarrietan ezarritakoari jarraituta.
2. Epaimahaiak ahalmena izango dau: dirulaguntzak emoteko prozeduretan gertatzen diran gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko; egokitze jotzen dituan aurrekariak edo txostenak eskatzeko; oinarrien arabera eskabideak ebaluatzeo eta adjudikazio proposamena eskumena daukan erakundeari bialtzeko, onuradunak nortzuk diran eta dirulaguntza horreen zenbatekoa zein dan zehaztuta.



3. Ebazpen proposamenaren –ondo arrazoitua eta Epaimahaiaren aktan jasota–, eskatzaileen merezimenduak agertuko dira, oinarrietan ezarritakoari jarraituta. Besteak beste, honek izan daitezke merezimenduak:
  - a) Aurkeztutako ekintza-proiektuak bat egitea jagokoa dirulaguntza deialdi horren helburu eta xedeakaz.
  - b) Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomiko.
  - c) Egin beharreko ekintzen errentagarritasuna, gizarte, kultura, kirol, hezkuntza, laguntza, zientzia, teknika, arte eta ganerako arloetan.
  - d) Alkartea herri onurakotzat hartzea, halan izan ezker.
  - e) Egin gura diran ekintzetan izandako esperientzia (egiaztatua).
  - f) Ekintzak egiteak sortzen dituan onurak ekintza horren helburu diran taldeei zabaltzea.
  - g) Aurreikusitako ekintzak Udalaren herri-interesekoak izatea.
  - h) Alkarteak Udalak itxitako lokalik daukan ala ez.
4. Ez da beharrezkoa izango entzunaldi-izapiderik egitea prozeduran interesdunek aurkeztutako ekintza ez alegazio edo probarik agertzen ez bada edo kontuan hartuko ez bada.

### **19. artikulua.- Ebazpena**

1. Alkatea edo Erakunde Autonomoko Presidentea izango da erabagia emoteko organo eskuduna, ez bada, oinarrietan kontrarik jarri dala, eta beti bere, organo horren ordezkaria izateko daukan ahalmenari kalterik egin barik.
2. Ebazpena Epaimahaiak emondako proposamenari lotuko jako, ez bada Presidentziak kontrakoa dinoala, prozeduran arau-hauste larriren bat egon dalako. Holango kasuetan, atzera egingo da, hain zuzen bere, arau-haustea edo arau-hauste larri nabaria egin zan unera, eta zuzenbideari lotutako ebazpen egokia emongo da.
3. Ebazpenean ondokoak agertuko dira: dirulaguntza jasoko daben eskatzaileen zerrenda agertuko da, dirulaguntzaren kopurua, onuradunen betebeharrak eta atzera botatutako ganerako eskabideak, egon badira.
4. Ebazpena emoteko sei hilabeteko epea egongo da gehienez bere, ez bada Europar Batasuneko arautegian ezarritako lege mailako arauen batek epe luzeagoa ezarten dauela. Epe hori deialdiaren eta oinarrien iragarkia argitaratzen danetik gora hasiko da.
5. Ebazpenaren jakinarazpena administrazio prozedura erkidearen arautegiaren arabera egingo da 10 eguneko epean, jakinarazpena emoten dan egunetik hasita; bertan agertuko dira bidezko errekursoak zeintzuk diran.
6. Ebazpena emoteko epea bete eta jakinarazpenik egin ez bada, interesatuak ulertuko dau eskaria desestimatu egin dala administrazio isiltasunaren bidez eta egokitut hartzen dituan errekurso administratibo eta juridizialak jarteko.

## **III. KAPITULUA** **ADJUDIKAZINO ZUZENKO PROZEDURA**

### **20. artikulua.- Adjudikazio zuzena**

1. 13. artikuluko 3. atalean aurreikusitako kasuetan, espedienteak gastuaren onarpenaren izapideagaz lotuta joan beharko dau, arazoak behar bezala adierazota, kontabilitatearen eta aurrekontuen ganeko indarreko araudiagaz bat

etorrita, eta batez bere Aurrekontua Beretarazoteko Arauan ezarritako izapideak dirala-eta.

2. Dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenak egin daitezke, legearen eta ordenantza honen arabera aplikagarriak diran konpromisoak eta baldintzak adierazota, baita dirulaguntzaren araubide juridikoaren eta onuradunek jasotako dirulaguntzei aplikatu beharreko egiaztapenaren araubidearen arabera bere.

#### **IV. KAPITULUA**

#### **DIRULAGUNTZAK EGIAZTATZEKO ETA GESTIONATZEKO PROZEDURA**

##### **21. artikulua.- Onuradunek diruz lagundutako ekintzak azpikontratatzeko aukera**

1. Hauxe hartzen da azpikontratutzat: onuradunak beste bategaz/batzukaz hitzartzea ekintza bat osorik edo zatika egitea. Kontratazino horretatik kanpo geratzen da diruz lagundutako ekintzaren onuradunak berak ekintza egiteari lotuta doazen gastuen kontratazinoa (langile propioak kontratatzea, ekintzaren ohiko funtzionamenduaren gastuak, materiala erostea, etab.)
2. Onuradunak kasu baten baino ezin izango ditu azpikontratatu diruz lagundutako lanak: azpikontratazinoa egitea oinarrietan ezartzen danean. Horren ganeko aurreikuspenik egin ezean, baimendutako azpikontratazinoaren ehunekoa ez da izango diruz lagundutako ekintzaren zenbatekoaren %50etik gorakoa.
3. Udalak eta bere Erakunde Autonomoek, kasuan kasukoak, alde aurretik eta beren beregi baimendu beharko dabez onuradunek diruz lagundutako ekintzak burutzeko egin gura dabezan azpikontratuak. Kontratu horreek idatziz jarri beharko dira ondoko egoera bi honeek batera gertatzen diranean:
  - a) Diruz lagundutako ekintza hori dirulaguntzaren %20tik gorako ez danean.
  - b) Azpikontratatu beharreko zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa ez danean. Kontratu ezin ezingo da zatitu atal honetan ezarritako baldintza honeei ez erantzutearren.
4. Kontrartistek onuradunakazkoak baino ez dabez bete beharko; diruz lagundutako ekintzaren erantzukizun osoa onuradunak bereganatuko dau administrazioaren aurrean. Halanda bere, ordenantza honetako 30. artikuluan ezarritako lankidetzat bete behar dabe kontrartistek, azpikontratazino mugak legeen eta arauen arabera beteten dirala behar bezala egiaztatu ahal izateko.
5. Onuradunek ezingo dabe azpikontratazino egin honako honeekaz:
  - a) Onuradun edo erakunde laguntzaile izatearen ganekoa dan ordenantza honen 10. artikuluan edo legeriaren debekuren bat hausu daben pertsona edo erakundeakaz.
  - b) Ekintza hori berori egiteko bestelako dirulaguntzak jaso dabezan pertsona edo erakundeakaz.
  - c) Bitartekari edo aholkulariakaz, baldin eta ordainketak eragiketaren kostu osoaren ehuneko modura zehazten badira; ez bada, ordainketa hori justifikatuta dagoala lan merkatuagaitik edo emondako zerbitzuen balioagaitik.
  - d) Onuradunagaz loturaren bat daukien pertsona edo erakundeakaz, ondoko egoera biak batera gertatu ezik:
    - Kontratazinoa merkatuaren ohiko baldintzen arabera egitea.
    - Dirulaguntza emoten dauen organoaren baimena lortzea alde aurretik, beti bere, oinarrietan ezarritakoari jarraituta.

- e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu eta lortu ez daben pertsona eta erakundeakaz (eskakizunak ez beteteagaitik edo nahikoa balorazino lortu ez dabelako).

## **22. artikulua.-Onuradunak diruz lagundu daitekezan gastuak azpikontratatzea**

1. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada –obra egiteko danean– edo 12.000 eurotik gorakoa bada – ekipamendu ondasunak hornitzeko edo aholkularitza zein laguntza teknikoko enpresek emondako zerbitzuak diranean–, onuradunak gitxienez hiru aurrekontu eskatu beharko deutsez hornitzaileei hornidura edo zerbitzua burutu aurretik; ez bada, zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen daben enpresa gitxiago dagozala edo gastua dirulaguntza eskaria aurkeztu aurretik egin dala. Eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituta egin beharko da aukeraketa, eta egindako aukera hori ez bada eskaintza merkeena, arrazoitu egin beharko da memorian. Aurkeztutako eskaintzen aukera eta aukeraren egiaztapena, halan danean, hurrengo artikuluan aitatzen dan justifikazinoari gehitu beharko jako.
2. Inbentarioan sartu daitekezan ondasunak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzen diranean, onuradunak jasotako dirua dirulaguntzan jarritako helburua beteteko erabili beharko dau, gitxienez bost urtean, erregistro publikoan sartzeko modukoak badira, eta urte bian ganerako ondasunetarako.
3. Aurreko ataleko baldintza hori bete ezean –hau da, jasotako dirua ez bada dirulaguntzan jarritako helburua beteteko erabilten–, jasotakoa itzuli egin beharko da legeetan eta ordenantza honetako hurrengo tituluan ezarritakoaren arabera; kopuru hori bueltatu egin beharko da jaubea edozein dala bere, ez bada erregistro-fede publikoak babestutakoa dala edo ondasunak titulu justuz erosi zirala ziurtatzen dauela edo jendearentzako merkataritza edo industria establezimenduak dirala, erregistroan sartu ezin diran ondasun higikorren kasuan.
4. Ondoko gastuak ezingo dira diruz lagundu:
  - a) Bankuko kontuen interes zordunak.
  - b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo eta penalak.
  - c) Prozedura judizialeko gastuak.
  - d) Pertsona Fisikoen Errentaren ganeko Zerga, Soziedadeen ganeko Zerga eta zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu daitekezanean.

## **23. artikulua.- Dirulaguntza publikoen justifikazinoa**

1. Onuradunak edo erakunde laguntzaileak derrigorrean aurkeztu beharko dau kontuen justifikazinoa. Justifikazino horretan ondokoak sartu beharko dira, aitortpena egiten dauenaren erantzukizunpean: gastuen ziurtagiriak edo, dirulaguntza publikoaren xedea bete dala egiaztatzeko balio juridikoa daukan beste edozein dokumentu.
2. Dirulaguntzen oinarrietan beren beregi ezarrita ez badago, 60.000,00 eurotik beherako dirulaguntzak "justifikazinoko kontu erraztua"ren bidez (38/2003 Legearen Erregelamenduaren 75. artikuluan arautua) justifikatu beharko dira.
3. "Justifikazinoko kontu erraztua"ren dokumentuan ondoko informazinoa sartu beharko da:
  - a) Justifikazinoko ekintza-memoria, dirulaguntzaren adjudikazinoan ezarritako baldintzak bete egin dirala egiaztatzen dauena, egindako ekintza eta lortutako emaitzak jarrita.
  - b) Ekintza bakoitzaren gastu eta inbertsinoen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren izena eta dokumentua zehaztuta, gastua, jaulkien data

eta, halan bada, ordainketa data. Dirulaguntza hori estimatutako aurrekontuaren arabera emon bada, sortu diran desbiazinoak azaldu egin beharko dira.

- c) Diruz lagundutako ekintza finantziatu daben sarrera eta dirulaguntzen zerrenda zehatza, nondik jaso diran eta euren zenbatekoa jarrita.
  - d) Itzulketaren ordainketa-gutuna, beti bere, aplikatu bako soberakinik edota euren interesik egon ezkeror.
4. Dirulaguntzak emoten dituan organoak ziurtagiri batzuk –oinarrietan ezarritako laginen arabera aukeratuak– frogatuko ditu, eta horretarako onuradunari eskatu ahal izango deustoz ziurtagiriak. Lan horren helburua dirulaguntza modu egokian erabili izan dala egiaztatzea izango da.
  5. Dirulaguntza hori onuradunaren egoera jakin bati aurre egiteko emon bada, dirulaguntza jaso aurretik onuradunak egoera hori bizi izan dauela egiaztatzen dauen dokumentua baino ez da aurkeztu beharko (zuzenbidean onartutako edozein bidetatik lortua).
  6. Dirulaguntzaren justifikazinoa legean edo ordenantza honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu ez egiteak edo dirulaguntza behar beste justifikatu ez egiteak, dirulaguntza itzuli beharra ekarriko dau, ordenantza honen 25. Artikuluan ezarritakoari jarraituta.

#### **24. artikulua. –Justifikazinoak egiteko prozedura**

1. Egiaztagiria idatziz egin beharko da eta Udaleko zein Erakunde Autonomoko jagokon Arlo edo Atalari zuzenduko jako. Dokumentu horri aurreko artikuluan aitatutako frogagiriak eta egiaztapen-kontua erantsi beharko jakoz.
2. Epaimahaiak aurkeztutako frogagiriak aztertu eta ebazpena emongo dau proposamen eta guzti: ontzat emongo ditu frogagiriak eta dokumentazinoa edo, ostantzean, onuradunak jasotako dirulaguntzaren parte bat edo dirulaguntza osoa itzultzeko proposamena egingo dau. Presidentziak Epaimahaiaren proposamenagaz bat etorrita emongo dau ebazpena; halanda bere, gertatu leiteke inoiz Presidentziak beste erabagi bat hartzea, hori bai, beti bere arrazoitua.
3. Lehenago emondako dirulaguntzen justifikazinoa behar bezala egin ez dauen onuradunari ez jako beste dirulaguntzarik emongo.

## **II. TITULUA. DIRULAGUNTZEN ITZULKETA**

#### **25. artikulua.- Dirulaguntza emoteko ebazpena baliogabetzea**

1. Honeexek dira dirulaguntza emoteko ebazpena balio barik ixteko arrazoiak:
  - a) Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen ganekoa dan zemendiaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 artikuluan agertzen diranak.
  - b) Indarrean dagoan aurrekontuen ganeko araudiak ezartzen dauenaren arabera, krediturik eza edo nahikoa krediturik ez izatea.
2. Ordenamendu juridikoan ezarritako ganerako arau-hausteak bere dirulaguntzen adjudikazinoa balio barik ixteko arrazoitzat joko dira; batez bere, dirulaguntzak arautzen dituan araudian agertzen diranak eta Ordenantza honetakoak, 30/1992 Legearen 63 artikulua ezarritakoari jarraituta.
3. Aurreko ataletan aitatutako deusezte- edo baliogabetze-arrazoiren bat ikusten bada, organo emoleak ofiziozko berrikuspen-espeditentea hasiko dau, edo halan

bajagoko, dirulaguntza emotea kaltegarritzat jo eta gero inpugnatu egingo dau, 30/1992 Legearen 102 eta 103 artikuluetan ezarritakoari jarraituta.

4. Dirulaguntzaren adjudikazioa, adierazpen administratibo edo judizial irmo bidez, deuseztu edo balio barik ixten bada, onuradunak jasotako diru kopurua bueltatu egin beharko da.
5. Hurrengo artikuluan ezarritako arrazoiatarikoren bat tarteko izan ezkerro, ez da ofiziozko berrikuspen-espediterik idegiko.

#### **26. artikulua. – Dirua itzultzeko arrazoiak**

1. Jasotako diru kopurua eta berari jagokozan berandutze-interesak (dirulaguntza jaso zanetik itzuli behar dan egunera artekoak) ondoko kasuetan itzuli beharko dira:
  - a) Eskatutako baldintzak edo dirulaguntza emoteko traba izango ziran baldintzak faltsutzea edo ezkutatutzea.
  - b) Helburua (osorik edo parte bat), ekintza edo proiektua ez betetea, edo dirulaguntzaren adjudikazioaren oinarri dan jarrera ez hartzea.
  - c) Dirulaguntzak ez justifikatzea edo behar bestean ez justifikatzea, Legean eta Ordenantza honen 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.
  - d) Ekintzaren finantziazio bideak ezagutarazoteko betebeharra ez betetea, Ordenantza honen 8. artikuluko h) atalean eta 11. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.
  - e) Legeak eta Ordenantza honek ezarritako kontrol lanaren kontra agertzea, atxakiak jarrea, traba egitea, edo egin gura izan ez egitea; baita kontabilidade eta erregistroko betebeharrak ez betetea, edo dokumentazioa ez gordetea. Beti bere, jarrera horreen ondorioz ezin bada egiaztatu: emondako diru kopurua zein izan dan, helburua bete dan ala ez, diruz lagundutako ekintzak burutu diran ala ez, zein izan dan ekintzon maiztasuna, edo ekintza horreek burutzeko dirulaguntza, diru-sarrera, laguntza edo beste baliabiderik jaso dan –dirulaguntza horreek Eusropar batasuneko edo nazioarteko erakundeetako zein estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko eta pribatuakoak izan–.
  - f) Udalak edo bere Erakunde Autonomoek onuradunei eta erakunde laguntzaileei ezarritako betebeharrak ez betetea, ezta, dirulaguntzen adjudikazioaren oinarrian dagozan helburu, ekintza edo hartu beharreko jarrera dala-eta, eurokaz berbatutako konpromisoak beteko moduan eragina daukienak bere.
  - g) Udalak edo bere Erakunde autonomoek onuradunei edo Erakunde Autonomoei ezarritako betebeharrak ez betetea, ezta, aitatutakoez ganera, eurokaz berbatutako konpromisoak bere. Beti bere, horren ondorioz jasotako diruaren erabilera frogatzea ezinezkoa bada, edo horreek burutzeko dirulaguntza, diru-sarrera, laguntza edo beste baliabiderik jaso bada – dirulaguntza horreek Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako zein estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko eta pribatuakoak izan–.
  - h) Europar Batasuneko Itunaren 87. Artikulutik 89.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza itzultzea dakarren erabagietariko bat hartzea.
  - i) Dirulaguntza arautzen dauen arautegian ezarritako ganerako kasu guztiak.
2. Onuradunak edo, hala denean, erakunde laguntzaileak helburua oso-osorik bete ez arren, gitxi falta izan bajako eta frogatu bada ahalegina egin dauela ezarritako helburuak beteteko, erantzukizun graduazioaren irizpideak –heinekotasun-

printzipioetan oinarrituta- aplikatuko dira itzuli behar dan diruaren zenbatekoa zehazteko.

### **27. artikulua.- Itzuli beharreko kredituak eta itzulketa eskatzeko prozedurak**

1. Itzuli beharreko kopruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta Zergen ganeko Foru Arau Orokorrean eta Zergabilketaren ganeko Ordenantzan ezarritakoa aplikatu beharko da.
2. Dirulaguntzen kasuan aplikatuko diran berandutze-interesa hauxek izango da: diruaren legezko interesak gehi %25; ez bada, Estatuko Aurrekontu Orokorretan bestelango interesik ezartzen dala.
3. Itzulketa egiteko betebeharra finkatzeko prozedura administrazinokoa izango da eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen ganekoa dan zemendiaren 26ko 30/1992 Legearen VI. Tituluan ezarritako izapideen bidez gauzatuko da; halanda bere, interesatuei entzunaldia bermatuko jake.
4. Prozeduraren ganeko ebazpena emoteko eta jakinarazoteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da -hasiera emoteko erabagia hartzen danetik kontatzen hasita-, beti bere, administrazio prozedura erkidearen ganeko legerian ezarritako epeak luzatzeko edo prozedura eteteko gertatu daitekezan egoerei kalterik egin barik. Epe hori igarota, prozedura iraungitzat joko da, preskribitzeko epealdiaren barruan beste prozedura bat hasteko aukerari kalterik egin barik.

## **III. TITULUA. DIRULAGUNTZEN FINANTZA KONTROLA**

### **28. artikulua.-Finantza kontrolaren araubide orokorra**

1. Udalak eta bere Erakunde autonomoek emondako dirulaguntzak dirala-eta, onuradunek eta, halan danean, erakunde laguntzaileek jaso daben dirulaguntza horren finantza kontrola Udaleko Kontuhartzailletza Sailak egingo dau.
2. Dirulaguntzen finantza kontrolaren helburua ondoko honeek egiaztatzea izango da:
  - a) Onuradunak dirulaguntzak modu egokian eta zuzen lortu izana.
  - b) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntza kudeatzeko eta aplikatzeko betebeharrak bete izana.
  - c) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzen justifikazioa modu egokian eta zuzen egin izana.
  - d) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako frogagirien arabera dirulaguntzagaz finantziatu diran ekintzen egoera eta erregulartasuna.
  - e) Diruz lagundutako jardueren finantziarioa egokia eta zuzena, legean eta Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
  - f) Diruz lagundutako ekintzen finantziarioa dala-eta, bestelako finantziarioa jaso eta onuradunak eta erakunde laguntzaileak administrazioari adierazo ez deusiezan ekintzen barri izatea; beti bere, beste diru iturri horreek dirulaguntza honen finantziarioan eraginik badaukie, dirulaguntza modu egokian eta zuzenenan lortzeko, erabiltzeko edo egiaztatzeko, baita diruz lagundutako eragiten egoeran eta erregulartasunean eragina badaukie bere.
3. Finantza kontrolatu ahal izateko, ondokoak egiteko aukera egongo da:
  - a) Onuradunen eta erakunde laguntzaileen kontabilitate erregistroak, finantza kontuak edo egoerak eta euron euskarri dan dokumentazioa aztertzea.
  - b) Emondako dirulaguntzagaz lotutako edo eragina izan leien banakako eragiketa zehatzak aztertzea.

- c) Emondako Dirulaguntzagaz lotutako edo eragina izan leien gaien ganeko egiaztapenak (osoak edo atalen baten ganekoak).
  - d) Finantzatutako inbertsinoen egiaztapen materiala.
  - e) Dirulaguntzaren arautegian eta, halan danean, adjudikazioaren ganeko ebazpenean ezarritakoaren arabera egin beharreko kontroleko jarduketa zehatzak.
  - f) Diruz lagundutako ekintzen ezaugarri bereziak dirala-eta, beharrezkoak diran generako egiaztapen guztiak.
4. Finantza kontrola onuradunakaz lotura edo zerikusia daukien pertsona fisikoei edo juridikoei bere aplikatu lekikie, baita helburua lortzeko, ekintzak egiteko, proiektuak betearazoteko edo jarrerak hartzeko interesa izan leien beste edonori bere.

**29. artikulua.- Erkidegoko diruz finantziatutako (osorik edo zati bat) dirulaguntzen eta laguntzen finantza kontrola**

Erkidegoko diruz finantziatutako (osorik edo zati bat) dirulaguntza eta laguntzei jagokenean, Udaleko Kontuhartzailtza Sailak lagundu egingo deutso Estatuko Administrazio Orokorren Kontuhartzailtzari Dirulaguntzen ganeko zemendiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 45. Artikuluak ezarritako helburuak beteten.

**30. artikulua.- Lagundu beharra**

1. Onuradunak, erakunde laguntzaileak eta dirulaguntzaren oinarri dan helburuagaz edo dirulaguntzaren justifikazioagaz lotuta dagozan generako guztiak behartuta dagoz Kontuhartzailtzari laguntzen, baita sail horrek egingo dauen kontrol lanerako eskatzen deusien dokumentazioa emoten bere. Kontuhartzailtzak kontrola behar bezala egiteko, ondoko eskumenak izango ditu:
  - a) Egiaztatu beharreko dokumentazioa askatasunez eskuratu ahal izatea, euskarri infomatikoko artxibategiak eta programak barne.
  - b) Negozioetan eta generako establezimenduetan edo diruz lagundutako jarduera egiten dan teokietan edo dirulaguntzaren pentzura finantziatutako eragiketen egoera eta erregulartasuna egiaztatzeke tokietan askatasunez sartu ahal izatea.
  - c) Dirulaguntza modu okerrean lortu edo erabilera okerra emon jakolako susmoa euki ezkeru, fakturen, agiri baliokideen edo euron ordezkoen kopia lortu eta gorde ahal izatea.
  - d) Dirulaguntzaren kobrantza egiteke edo dirulaguntza horren fondoak hartzeke erabili diran banku-kontuen ganeko informazioa askatasunez lortu ahal izatea.
2. Betebehar hori beteteari uko egitea, kontrako agerralditzat edo ukapentzat hartuko da, Ordenantza honen 26. Artikuluan ezarritako ondoreeetarako, bidezkoan izan leitekezan zigorreke kalterik egin barik.

**IV. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**  
**I. KAPITULUA. ADMINISTRAZINOKO ARAU-HAUSTEAK**

**31. artikulua.- Arau-hausteak zer diran**

Hauxe hartuko da arau-haustetzak: dirulaguntzen ganeko legean eta Ordenantza honetan tipifikatutako ekintzak eta omisinoak. Arau-hausteak zabarkeria huts modura bere zigortu ahal izango dira.

### **32. artikulua.- Erantzuleak**

1. Nortzuk hartuko dira administrazinoko arau-hausteen erantzuleak?: Ordenantza honetan tifikatutako kasuetan urratzeak edo omisinoak egin dabezan pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, baita Ordenantza honetako 7. Artikuluaren 2. Atalean aipatzen diran nortasun bako erakundeak bere. Hona hemen pertsona horreek:
  - a) Dirulaguntzen onuradunak, baita Ordenantza honetako 7. Artikuluko 2 eta 3. Ataletan ezarritako pertsonak edo erakundeetako kideak ere.
  - b) Erakunde laguntzaileak.
  - c) Jaurduteko ahalmenik euki ez eta dirulaguntzen onuradun diren pertsonen legezko ordezkaria.
  - d) Dirulaguntzaren helburuagaz edo justifikazioagaz lortura daukien pertsonak edo erakundeak. Pertsona eta erakunde horreek laguntasuna eta eskatzen jaken dokumentazio guztia emon beharko dabe Ordenantza honen 30. Artikuluan xedatutakoa beteteko.
2. Ondasun alkarte edo edozein eratako ekonomi unidade edo ondare banatuen kasuan (Ordenantzako 7. Artikuluko 2.atalean azaldutakoak), ezarritako diruzko zigorra taldekide, partaide edo titularkideek modu solidarioan ordaindu beharko dabe, bakoak daukan protzentari jagokon proportzinoan.
3. Diruzko zigorrak modu subsidiarioan ordaindu beharko dabezanak ondokoak izango dira: merkataritza soziedadeetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak daukienak, urratutako betebeharrak posible egiten ez daben erabagiak hartu badabenez edo euren menpekoen urratzeak onartzen badabenez; aplikatzekoak diran legeetan eta estatutuetan ezarritako lege xedapenak bat etorrita.
4. Bazkideen, partaideen edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatuta izanda soziedadeak edo erakundeak desegin eta likidatzen diranean, ordaindu bako zigorrak horreei eskualdatuko jakez, eta pertsona horreek modu solidarioan izango dira erantzule hareei adjudikatutako edo adjudikatu beharko jaken kuotaren mugaraino. Legearen arabera erantzukizuna mugatuta ez daukien soziedadeak edo erakundeak badira, bazkideei, partaideei edo titularkideei eskualdatuko jakez zigorrak, eta zigorra modu solidarioan beteteko erantzukizuna euren izango da.

### **33. artikulua.- Erantzukina salbuesteko kasuak**

Ordenantza honetan tipifikatutako ekintzak eta omisinoak ez dabe dirulaguntzen arloko administrazinoko zigorrak eragingo honako kasu honeetan:

- a) Doloz edo erruz jarduten ez danean.
- b) Jarduteko ahalmenik ez daukienez egiten dabezanean.
- c) Ezinbestekoa danean.
- d) Talde-erabagi baten ondorio diranean, urratzea edo ez egiteko erabagia hartu zan bilerara joan ez ziranentzat edo horretan botoa berezia daukieneztat.

### **34. artikulua.- Antolamendu juridikzional eta penaleko jarduketak**

1. Jarduera delituztat hartu daitekeen kasuetan, Udalak erruaren lekukotza juridikzino organo eskumendunari pasatuko deutso eta ez dau zigor prozesurik hasiko harik eta epaileak epai irmoa emon arte, jarduketak artxibatu arte edo Ministerio Fiskalak espedientea bueltatu arte.
2. Ondorio horreetarako, zigor prozeduraren instrukzioa egingo dauen agintariak edo funtzionarioak delitu egon dala frogatzen dauen aztarnarik topatzen badau, txosten



bat egingo dau aztarna horreek delituaren froga dirala arrazoitzeko. Gero, espedientea eta txosten hori –orriak behar bezala zenbatuta eta koadernatuta– Guardiako Epaitegira edo Ministerio Fiskalera, bialduko ditu.

3. Epaileak zigorra ezartzen badau, ez jako gertaera horregaitik beragaitik administrazino zigorrik ezarriko.
4. Epaileak deliturik ez dala egon erabagiten badau, Administrazinoak zigor espedientea hasiko dau auzitegiek frogatutzat jotzen dabezan egitateetan oinarrituta.

### **35. artikulua.- Arau-hauste arinak**

1. Arau-hauste arintzat honako hau hartuko da: ordenantza honetan eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak ez betea, baldin eta arau-hauste larria edo oso larria ez bada eta zigorraren graduazino elementu modura hartzen ez bada. Urratze arinak ondoko honeek izango dira:

- a) Jasotako diruaren erabilera justifikazitzeko kontuak epez kanpo aurkeztea.
- b) Justifikazinoarako aurkeztutako kontu horreek zehatzak ez izatea edo osorik ez egotea.
- c) Artikulu honetako ganerako paragrafoetan ezarri barik dagozan baina dirulaguntzaren adjudikazinoaren ondorioz bereganatutako betebeharrak ez betetea, arauetan ezarritakoaren arabera.
- d) Kontabilidate eta erregistro betebeharrak ez betetea. Hain zuzen ere, ondokoak:
  - Eragiketa bat edo gehiagoren zehaztasun falta, edo eragiketa .
  - Kontabilidatea, lege ezarritakok erregistroak eta euren euskarri diran infomatika artibategiak eta programa eukiteko edo gordetzeko betebeharrak ez betetea, ezta erabilitako kodifikazino sistemena bere.
  - Ekintza eta ekonomia-ekitaldi berari jagokozan kontabilidate bat baino gehiago izatea, baldin eta euron ondorioz ezinezkoa bada erakundearen benetako egoera ekonomiaren barri izatea.
  - Kontuak ezarritako helburuetarako barik beste helburu baterako erabiltea, egoeraren arabera, baldin eta euron ondorioz ezinezkoa bada diruz lagundutako erakundearen benetako egoeraren barri izatea.
- e) Frogagiriak edo agiri baliokideak gordetzeko betebeharrak ez betetea.
- f) Artikulu honetako ganerako ataletan beren beregi ezarrita ez dagozan baina legean ezarrita dagozan betebeharrak ez betetea erakunde laguntzaileek.
- g) Finantza kontrolerako egin daitezkezan jarduketak eragozteak, euren kontra agertzea, atxakiak jarrea edo uko egitea. Holango egoerak gertuko dira dirulaguntzen arloko administrazino arau-hasteen arduradunak, ondore horretarako behar bezalako jakinarazpena izanda, eskuhartzailetzako funtzionarioek finantza kontrola burutzeko jardua luzatu, galarazo, edo eragozteko jarduketak egiten dituanean. Honeexek dira, besteak beste, lan horren kontra agertu, galarazo, atxakiak jarri edo uko egitezak hartuko diranak:
  - Ondoko dokumentu honeek ez aurkeztea: agirien azterketa, txosten aurrekari, liburu, erregistro, fitxategi, frogagiri, kontabilidate-idazpenak, infomatika artxibo eta programak, sistema operatibo eta kontrolerako sistemak eta egiaztatutako beharreko beste edozein datu.
  - Agindeiren bat antzat ez hartzea.
  - Deitutako tokian eta denporan ez agertzea, joan ezinaren arrazoiak frogatu ezean.

- Negozioaren lokaletan eta frogak dagozan ganerako establezimendu zein tokietan sartzea edo egotea galarazotea –behar ez bezala– edo baimenik ez emotea; lokal horreetan onuradunak edo erakunde laguntzaileak jasotako diruaren edo diruz lagundutako ekintzen egoera eta erregularatasuna egiaztatzeko aztarnak dagozala uste bada.
  - Kontrola egiten daben langileak derrigortzea.
- h) Ordenantza honetako 30. Artikuluak ezartzen dauenaren arabera, pertsona edo entidadeek laguntza eskaintzeko daukien betebeharrak horri ez erantzutea, horren ondorioz ezinezko bihurtzen bada onuradunak edo erakunde laguntzaileak emondako informazioa egiaztatzea.
- i) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko arautegian arau-hauste arintzat jotzen diran ganerako jarrerak.

### **36. artikulua.- Arau-hauste larriak**

Honako jokaerak hartuko dira arau-hauste larritzat:

- a) Organo emoleari edo erakunde laguntzaileari ez jakinarazotea helburu bererako beste dirulaguntza bat/batzuk, laguntza publikoa, sarrerak edo dirua jaso dala, Ordenantza honen 8. Artikuluko d) atalean ezarritakoari jarraituta.
- b) Ezarritako baldintzak ez betetea, dirulaguntza emoteko helburuak funtsean aldatuta.
- c) Jasotako diruaren justifikazioa ez egitea horretarako ezarritako epean.
- d) Erakunde laguntzailea izateko, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betekizunak desitxuratzea edo traba izan eitekezan datuak ezkutetzea.
- e) Erakunde laguntzaileak ez betetea dirulaguntzak emoteko baldintzak edo eskakizunak eta euren eraginkortasuna egiaztatzeko betebeharrak, horren ondorioz dirua itzuli beharra gertatzen bada.
- f) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko arautegian arau-hauste larritzat jotzen diran ganerako jarrerak.

### **37. artikulua.- Arau-hauste oso larriak**

Honako jokaerak hartuko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Laguntza edo dirulaguntzaren bat lortzea eskatutako baldintzak desitxuratuta, edo dirulaguntza jasotzeko traba izan eitekezan datuak ezkutatuta.
- b) Jasotako diru kopurua –osorik edo zati bat– esandako helburuak beteteko ez erabiltea.
- c) Ordenantza honetako 8. Artikuluko c) atalean ezarritako kontrol lanaren kontra agertzea, atxakiak jartea, galarazotea egin egin gura ez izatea; horren ondorioz ezinezko bihurtzen bada egiaztatzea: emondako dirua zertan erabili dan, esandako helburua beteteko erabili dan eta diruz lagundutako ekintzak egin egin diran eta zein dan euren erregularatasuna edo beste dirulaguntza, diru-sarrera, laguntza edo beste baliabiderik jaso dan – dirulaguntza horreek Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako zein estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko eta pribatukoak izan–.

- d) Erakunde laguntzaileek dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera jasotako dirua ez emotea onuradunei, halan egita ezartzen danean.
- e) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko arautegian arau-hauste oso larritzat jotzen diran ganerako jarrerak.

## **II. KAPITULUA. ZIGORRAK**

### **38. artikulua.- Zigor motak**

1. Dirulaguntzen arloko arau-hausteak dirutan zigortuko dira eta, bidezkoa danean, diruzkoak ez diran zigorrak jarriko dira.
2. Diruzko zigorrak isun finakoak edo proportzionalak izango dira. Isun proportzionalak bidegabekiz lortu, aplikatu edo justifikatu ez dan diruaren ezarriko egingo dira. Isun finakoa 75 eurotik 6.000 eurora bitartekoa izango da eta isun proportzionala bidegabekiz lortu, aplikatu edo justifikatu ez dan diru kopuruaren halako hirukoa izateraino heldu daiteke.  
Dirua itzuli beharra Ordenantza honetako II. tituluan ezarri da baina betebeharrak horrek ez dauka zerikusirik diru-isunagaz, eta isun hori kobratzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Herri Administrazioaren aurrekontuen indarreko arautegian zuzenbide publikoko sarreretarako ezarritako araubide juridikoa aplikatu beharko da era berean.
3. Arau-hauste larrietan edo oso larrietan ezarri daitezkezan eta diruzkoak ez diran zigorrak honakoak izan daitezke:
  - a) Herri administrazioetako edo bestelako erakunde publikoetako dirulaguntzak, laguntza publikoak eta bermeak lortzeko aukera galtzea, gehienez bere bost urterako.
  - b) Lege honek arautzen dituan dirulaguntzetan erakunde laguntzaile modura jarduteko aukera galtzea, gehienez bere bost urterako.
  - c) Herri administrazioak kontratuak egitea galarazota eukitea, gehienez bost urterako.

### **39. artikulua.- Arau-hauste arinetarako zigorrak**

1. Arau-hauste arin baxuak 75 eurotik 900 eurora bitarteko isuna jarriko jake, ez bada hurrengo atalean aitatzen dala.
2. Ondoko arau-hausteei 150 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna jarriko jake.
  - a) Eragiketa bat/batzuk kontabilitatean eta lege eskatzen diran erregistroetan ez agertzea edo agertuta bere datuak okerrak izatea.
  - b) Kontabilitate edo lege ezarritako erregistroak egiteko betebeharrak ez betetea.
  - c) Ekintza eta ekonomia-ekitaldi berari jagozkoan kontabilitate bat baino gehiago izatea, baldin eta euron ondorioz ezinezkoa bada erakundearen benetako egoera ekonomiaren barri izatea.
  - d) Kontuak ezarritako helburuetarako barik beste helburu baterako erabiltea, egoeraren arabera, baldin eta euron ondorioz ezinezkoa bada diruz lagundutako erakundearen benetako egoeraren barri izatea.
  - e) Kontrolako organoek eskatutako dokumentuak eta frogak ez aurkeztea edo fra eta dokumentu horreek erakutsi gura ez izatea.
  - f) Erakunde laguntzaileek Estatuko Dirulaguntzen Lege Orokorren 15. Artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetea.

- g) Ordenantza honetako 30. Artikuluak ezartzen dauenaren arabera, pertsona eta entidadeek laguntza eskaintzeko eta dokumentazioa emoteko daukien betebeharrak horri ez erantzutea; horren ondorioz ezinezko bihurtzen bada onuradunak edo erakunde laguntzaileak emondako informazioa egiaztatzea.

#### **40. artikulua.- Arau-hauste larrietarako zigorrak**

1. Arau-hauste larriari isun proportzionalak jarriko jakez. Isun proportzional horreek bidegabekiz lortu, aplikatu edo justifikatu ez dan –erakunde laguntzaileen kasuan, behar bezala aplikatu edo egiaztatu ez dan– diru kopuruaren halako bikoia izatera heldu daitezke.
2. Arau-hauste larriari jagokoa kalte ekonomikoa emondako dirulaguntzaren edo erakunde laguntzaileek jasotako kopuruaren ehuneko 50etik gorakoa eta 30.000 eurotik gorakoa bada, kontrola egiteko lanaren kontra jarten badira edo lan hori galarazoten bada edo iruzurrezko bideak erabilten badabekiz, arau-hausleei honako zigorrak ezarriko jakez:
  - a) Administrazioaren edo beste herri erakundearen dirulaguntzak, laguntza publikoak eta bermeak lortzeko aukera galtzea, gehienez bere hiru urterako.
  - b) Administrazioagaz edo beste herri erakunde batzukaz kontratuak egiteko aukera galtzea, gehienez bere hiru urterako.
  - c) Ordenantza honek arautzen dituan dirulaguntzetan erakunde laguntzaile modura jarduteko aukera galtzea, gehienez bere hiru urterako.

#### **41. artikulua.- Arau-hauste oso larrietarako zigorrak**

1. Arau-hauste oso larriari isun proportzionalak jarriko jakez. Isun proportzional horreek bidegabekiz lortu, aplikatu edo justifikatu ez dan –erakunde laguntzaileen kasuan, behar bezala aplikatu edo egiaztatu ez dan– diru kopuruaren halako bitik hirukora izatera heldu daitezke. Halanda bere, arau-hausleek dirua eta diru horri jagokozan berandutze-interesak eskatu aurretik bueltatu badabekiz, Ordenantza honetako 37. Artikuluko b) eta d) paragrafoetan aitatutako arau-haustek ez dira zigortuko.
3. Arau-hauste oso larriari jagokoa kalte ekonomikoa 30.000 eurotik gorakoa izanda, kontrola egiteko lanaren kontra jarten badira edo lan hori galarazoten bada edo iruzurrezko bideak erabilten badabekiz, arau-hausleei honako zigorrak ezarriko jakez:
  - a) Administrazioaren edo beste herri erakundearen dirulaguntzak, laguntza publikoak eta bermeak lortzeko aukera galtzea, gehienez bere bost urterako.
  - b) Administrazioagaz edo beste herri erakunde batzukaz kontratuak egiteko aukera galtzea, gehienez bere bost urterako.
  - c) Ordenantza honek arautzen dituan dirulaguntzetan erakunde laguntzaile modura jarduteko aukera galtzea, gehienez bere bost urterako.

#### **42. artikulua.- Preskripzioa**

1. Arau-haustek lau urteko epean preskribiduko dabe, arau-haustea gertatzen dan egunetik kontatzen hasita.
2. Arau-haustek lau urteko epean preskribiduko dabe, zigorra ezarteko ebazpena irmoa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
3. Arau-haustek prekribitzeko epea eten egingo da, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen ganekoa dan zemendiaren 26ko 30/1992 Legearen 132. Artikuan ezarritakoaren arabera.
4. Ofizioz aplikatutako preskripzioa, interesdunak alegazioa jarteko aukerari kalterik egin barik.

### **III. KAPITULUA. ZIGORRAK JARTEKO ESKUMENA ETA ZIGOR PROZEDURA**

#### **43. artikulua.- Zigorrek jarteko eskumena**

1. Presidentziak erabagi eta ezarriko ditu dirulaguntzen arloko zigorrak, aldez aurretik dirulaguntzak emon dituan Udal Sailak edo Arloak instrukzioak eginda. Horretarako, izapideak egin dituan organoak egokitzat hartzen dituan txostenak eta Kontuhartzailearen laguntza eskatu ahal izango dau.
2. Halanda bere, zigorrak ondoko ondorioak badakarz: estatuaren bermeak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak galtzea, edo estatuagaz edo bestelako herri erakundeakaz kontratuak egitea galarazota eukitea, edo Ordenantza honek araututako dirulaguntzetan erakunde laguntzaile modura jarduteko aukera galtzea; zigorra ezarteko eskumena Ogasun Ministerioarena izango da. Horretarako, zigor-espediterearen instrukzioaren organo eragileak, instrukzioa amaitu ostean, espediterearen testigantza Ministeriora bialduko dau, diruzko zigorrari jagokon bidezko proposamenari kalterik egin barik; ebazpena Presidentziari emongo jako erabagia emon daian.

#### **44. artikulua.- Zigor prozedura**

Dirulaguntzen arloko zigorrak ezarteko, administrazio espediterea egingo da; bertan, edozelan bere, entzunaldia emongo jako interesdunari, eta honako lege-oinarrietan ezarritakoari jarraituta egingo dira izapideak: administrazio prozedura erkidearen arloko estatuko oinarritzko legerian eta EAEko Herri Administrazioetako zigor ahalmena beteterearen ganekoa dan Euskal Autonomia Erkidegoaren legerian ezarritakoa.

#### **45. artikulua.- Erantzukizunaren irauungipena**

Arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna ordainketa egindakoan edo zigorra betetakoan irauungiko da, edo, osterantzean, arau-hausteak preskribidu dauelako edo erantzulea hil dalako, erantzulea pertsona fisikoa bada.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehenengoa**

Udalak, Kontuhartzailtza Sailak eskatuta, auditoretza enpresa pribatuen laguntza eskatu lei dirulaguntzen finantza kontrola egiteko, aurrekontuen ganeko indarreko arautegian ezarritakoaren arabera.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Honenbestez, indargabetu egiten dira Ordenantza honetan ezarritakoagaz bat egiten ez daben maila bereko eta bajagoko arau guztiak.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, behin betiko onartu ostean, ondoko lege artikuluek ezarritako baldintzak betetakoan sartuko da indarrean: apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49, 65.2 eta 70.2 artikulua, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emondako idazketaren arabera.